



ALMADIAREN EGUNA 2015 / AGURRA



“Nire lurretik, askotan bezala, ibaian behera abiatu nintzen laneko jantziekin, lau gauza jantzitegian eta familia bihotzean”. Horrelakoa zen almadiazainaren bizimodua.



Piriniotik Erriberara, zorte handiagoz edo txikiagoz, baina beti apal. Almadiak Milagrora iristen zirenean, beti maitasun berezia sumatzen zuten. Izan ere, ez da kasualitatea herri horrek bere kale bat izendatzeko lanbide horri aipamena egitea eta “Almadiazainen kalea” deitzea.



Orain almadiazainok Milagrori diogun maitasuna adierazteko, etxeakoak bagina bezala hartu gintuztelako, eta gure aurrekoen esker onari izena emateko, Milagroko ostatua omenduko dugu Urrezko Almadia emanaz.



Azkenik, adierazi nahi dizuegu denak ongi etorriak zaretela eta besoak zabalik zuen zain gaudela; lau gauza jantzitegian eta familia bihotzean.

<http://www.almadiasdenavarra.com/saludo.php?lang=eus>
(Egokitua)

13. Zer da almadia bat?

- A. Almadiazainak biltzeko leku bat
- B. Aspaldiko lanbide bat
- C. Zuhaitz enborrez eginiko plataforma flotatzailea
- D. Almadiaren eguneko ikuskizuna

14. Zer esan nahi du “lau gauza jantzitegian eta familia bihotzean” esamoldeak?

- A. Jantzi askorekin eta familia gogoratuz abiatzen zirela almadiazainak.
- B. Familiak emandako jantziak eramaten zituztela almadiazainek.
- C. Almadiazainen lanbideak familiatik urruntzea eskatzen zuela.
- D. Oinarrizko jantziak hartuta eta familia gogoratuz abiatzen zirela almadiazainak.

15. Zer adierazten dute komatxoek ondoko esaldian?

“Nire lurretik, askotan bezala, ibaian behera abiatu nintzen laneko jantziekin, lau gauza jantzitegian eta familia bihotzean”.

- A. Norbaiten hitzak direla.
- B. Esaldia almediaren eguneko leloa dela.
- C. Esaldia Agurraren sarrera dela.
- D. Esaldia oso garrantzitsua dela.

16. Nola deritze almadia gainean doazen pertsonei?

.....

17. Nori zuzendutako testua dela pentsatzen duzu?

- A. Aintzinako lanbideak gustuko dituzten pertsonei.
- B. Almadiazainen familiei eta lagunei.
- C. Almadiaren egunera joateko asmoa duten guztiei.
- D. Urrezko Almadia jasoko duten pertsonei.

18. Zertarako balio dute argazkiek testu honetan?

- A. Orrialdea osatzeko, testua motza delako.
- B. Almadiazainen lanbideari buruzko informazio bisuala emateko.
- C. Zonaldeko paisaiaren gaineko informazio zehatza emateko.
- D. Almadiazainen janzkera erakusteko.